

## TOKI ADMINISTRAZIOA

3

## ADMINISTRACIÓN LOCAL

## URNIETAKO UDALA

*San Migel jaietan tabernak/txosnak ipintzeko arautegiari buruzko udal ordenantza eguneratzearen behin betiko onarpenaren akats zuzenketa.*

Zuzendu egiten da Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, 166. zenbakian, 2024ko abuztuaren 29an, argitaratutako San Migel jaietan tabernak/txosnak ipintzeko arautegiari buruzko udal ordenantza eguneratzearen behin betiko onarpenaren iragarkia.

Zuzendutako testu osoa argitaratzen da, eta udalaren webgunean ([www.urnieta.eus](http://www.urnieta.eus)) eskuragarri egongo da, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondoren.

Urnieta, 2024ko abuztuaren 29a.—Jorge Segurado Iriondo, alkatea. (6323)

ERANSKINA

*Urnietako San Migel jaietan txosna eta antzekoen esleipena eta funtzionamendua arautzen dituen Ordenantza.*

I. TITULUA

## XEDAPEN OROKORRAK

**1. artikulua. Xedea.**

Ordenantza honek Urnietako San Migel jaietan txosna ez profesionalen eta antzekoen instalazioa arautzea du xede.

Txosna hauen helburua onuradunen autonomia ekonomikoa hobetzea da, urteko ekintzak aurrera eramateko.

**2. artikulua. Onuradunak.**

Beren jarduera Urnietako udalerrian garatzen duten irabazi asmorik gabeko kultur, kirol zein gizarte izaerako erakundeek, taldeek, edo elkarteek zein herriko ikastetxeek eskatu ahal izango dute txosnak jartzeko baimena.

**3. artikulua. Deialdia.**

Udalak urtero zehaztuko ditu eta bere webgunearen bidez jakinaraziko ditu ondorengo zehaztapenak:

- Kokalekua.
- Egutegia eta ordutegiak.
- Txosnen gehienezko kopurua.
- Baimena eskatzeko epea.
- Balizko zozketaren eguna, ordua eta lekua.
- Prozesuarekin lotutako beste edozein zehaztapen.

**4. artikulua. Eskerak eta esleipena.**

1. Interesatuak epe barruan eta behar bezala Udal Erregistroan aurkeztutako eskaerak Sustapen Sailak aztertuko ditu.

## AYUNTAMIENTO DE URNIETA

*Corrección de errores aprobación definitiva de la modificación de la ordenanza municipal sobre la instalación de tabernas/txosnas en las fiestas de San Miguel.*

Se procede a subsanar el anuncio de aprobación definitiva de la modificación de la ordenanza municipal sobre la instalación de tabernas/txosnas en las fiestas de San Miguel publicado en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 166 el 29 de agosto de 2024.

Se publica el texto íntegro corregido que estará disponible en la web municipal [www.urnieta.eus](http://www.urnieta.eus) tras la publicación de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Urnieta, a 29 de agosto de 2024.—El alcalde, Jorge Segurado Iriondo. (6323)

ANEXO

*Ordenanza reguladora de adjudicación y funcionamiento de txosnas y similares en las fiestas de San Miguel de Urnieta.*

TÍTULO I

## DISPOSICIONES GENERALES

**Artículo 1. Objeto.**

La presente Ordenanza tiene por objeto regular la instalación de txosnas no profesionales y similares en las fiestas de San Miguel de Urnieta.

El objetivo de estas txosnas será mejorar la autonomía económica de los beneficiarios para llevar a cabo sus acciones anuales.

**Artículo 2. Beneficiarios.**

Podrán solicitar la autorización para la instalación de txosnas las entidades, agrupaciones o asociaciones de carácter cultural, deportivo o social sin ánimo de lucro que desarrollen su actividad en el municipio de Urnieta o los centros escolares de la localidad.

**Artículo 3. Convocatoria.**

El Ayuntamiento determinará las siguientes especificaciones anualmente y las comunicará a través de su web:

- Ubicación.
- Calendario y horarios.
- Número máximo de txosnas.
- Plazo de solicitud de autorización.
- Fecha, hora y lugar del posible sorteo.
- Cualquier otra especificación relacionada con el proceso.

**Artículo 4. Solicitudes y adjudicación.**

1. Las solicitudes presentadas por los interesados en plazo y forma en el Registro Municipal serán examinadas por el Departamento de Promoción.

2. Txosnen gunean pluraltasuna bermatzeko, ahalegina egin-go da herri-bizitzako arlo desberdinak (kultura, kirola eta gizarte) egoki ordezkaturik egon daitezen.

Halaber, egindako eskaera kopurua jarri daitezkeen txosna kopurua baino handiagoa bada, baimenak ematerako orduan ondorengo irizpideak hartuko dira kontuan, hurrenkera honetan:

1.— Onuradunek Udalarekin lankidetzak hitzarmena sinatua izatea.

2.— Onuradunen presentzia maila urtean zehar, Urnietako herriari zuzenduriko bestelako ekintzetan.

Aurreko irizpideak aintzat hartuta berdinketa balego, zozketa bidez hartuko da erabakia.

Hautatuak izan diren onuradunei Udalak jakinaraziko die 10 egun balioduneko epean ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko dutela:

1.— Baimena lortzen duten onuradunek ordezkari bat izendatu beharko ditu Udalarekin eta Jai Batzordearekin solaskide gisa aritzeko, baimena lortzen den unetik festen amaierara arte.

Jarduerak irauten duten bitartean lokalizatze moduan egon beharko dute, edozein unetan beraiekin harremanetan jarri ahal izateko.

Horretarako, kontaktuen izenak, helbide elektronikoak eta sakeleko telefonoen zenbakiak aurkeztu beharko dituzte. Datu hauek txosnen irekiera dataren bezperara arte eguneratu ahal izango dira Udal Erregistro bidez.

2.— Dagokion erantzukizun zibileko poliza sinatu dela egiaztatzen duen dokumentua, gutxienez 300.000 €. Kopuru hau 44/2014 Dekretuak adierazten duena kontuan hartuta kalkulatu da. Aseguru-kontratua dagokion ordainagiriarekin batera erakutsiz edo aseguru-etxearen edo aseguru-agentearen ziurtagiriaren bidez egiaztatuta ahal izango da.

Hala ere, instalazio edo egitura bat baino gehiago batera kokatzen badira, guztientzako aseguru-poliza bakarria sinatu ahal izango da, zeinaren kapital minimoa martxoaren 25eko 44/2014 Dekretuaren 3. artikuluko lehen paragrafoko arauak, kokagunearen edukieraren arabera, finkatuko duten.

3.— Kutxabaneko ES12 2095 5068 63 1061730254 kontu korronte zenbakian dagokion 150 €-ko fidantza jarri izanaren agiria.

Fidantza Udalak utzitako lekua, materiala eta bestelako ondasun higigarriak utzitako egoera berean itzultzen direla baieztatzean itzuliko da.

4.— Jaten emango duten txosnek elikagaiak manipulatzeko txartelak aurkeztu beharko dituzte. Txartel hauek, txosnen irekiera dataren bezperara arte aurkeztu ahal izango dira Udal Erregistro bidez.

Ezarritako epean ez badute beharrezko dokumentazio hori aurkezten, eskaera bertan behera geratuko da eta baldin bada-go, hurrengo erakundeari egingo zaio jakinarazpena.

## II. TITULUA

### INSTALAZIO ETA FUNTZIONAMENDU BALDINTZA OROKORRAK

#### 5. artikulua. Instalazio baldintzak.

Baldintza teknikoak, segurtasunekoak eta higieniko-sanitarioak, araudi honetan, jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren buruzko abenduaren 23koa 10/2015, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onar-

2. Con el fin de garantizar la pluralidad en el espacio de las txosnas, se procurará que los diferentes ámbitos del tejido asociativo local (cultural, deportivo y social) estén adecuadamente representadas.

Asimismo, en el caso de que el número de solicitudes sea superior al número máximo de txosnas a instalar, en la concesión de las autorizaciones se tendrán en cuenta los siguientes criterios, por este orden:

1.— Que las y los beneficiarios tengan suscrito un convenio de colaboración con el Ayuntamiento.

2.— Nivel de presencia de los y las beneficiarias a lo largo del año en otras actividades dirigidas al municipio de Urnieta.

Si una vez tenidos en cuenta los criterios anteriores se diera un empate, se resolvería por sorteo.

El Ayuntamiento notificará a las y los beneficiarios seleccionados, que en el plazo de 10 días hábiles deberán aportar la siguiente documentación:

1.— Los y las beneficiarias que obtengan la autorización deberán designar un o una representante para actuar como interlocutores con el Ayuntamiento y la Comisión de Fiestas desde el momento de la obtención de la autorización hasta el final de las fiestas.

Deberán estar localizables durante el desarrollo de las actividades para poder ponerse en contacto con ellas en cualquier momento.

Para ello, deberán presentar sus nombres de contacto, direcciones de correo electrónico y números de teléfono móvil. Estos datos podrán actualizarse mediante Registro Municipal hasta la víspera de la fecha de apertura de las txosnas.

2.— Documento acreditativo de la suscripción de la correspondiente póliza de responsabilidad civil por un importe mínimo de 300.000 €. Esta cantidad se ha calculado teniendo en cuenta lo indicado en el Decreto 44/2014. El contrato del seguro podrá acreditarse mediante la presentación del correspondiente recibo o certificación de la entidad aseguradora o del agente de seguros.

No obstante, en el caso de concurrencia de varias instalaciones o estructuras, podrá suscribirse una única póliza de seguro común cuyo capital mínimo será fijado por las normas del apartado primero del artículo 3 del Decreto 44/2014, de 25 de marzo, en función de la capacidad del emplazamiento.

3.— Justificante de haber depositado una fianza de 150 € en la cuenta corriente número ES12 2095 5068 63 1061730254 de Kutxabank.

La fianza será devuelta una vez confirmada la devolución del espacio, material y otros bienes muebles depositados por el Ayuntamiento en el mismo estado en que se entregaron.

4.— Aquellas txosnas que darán de comer deberán presentar los carnés de manipulación de alimentos. Estos carnés podrán presentarse en el Registro Municipal hasta la víspera de la fecha de apertura de las txosnas.

Si en el plazo requerido no presentará la documentación requerida, la solicitud quedará anulada y, en su caso, se notificará a la siguiente entidad.

## TÍTULO II

### CONDICIONES GENERALES DE INSTALACIÓN Y FUNCIONAMIENTO

#### Artículo 5. Condiciones de instalación.

Las condiciones técnicas, de seguridad e higiénico-sanitarias serán las descritas con carácter general en este Reglamento, en la Ley 10/2015, de 23 de diciembre, de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas, en el Decreto 17/2019, de 5 de fe-

tzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuan eta azken hau aldatzen duen 119/2019 Dekretuan oro har deskribatutakoak izango dira.

Instalazioak Udalak adierazitako espazio zehatza errespetatuz kokatuko dira.

Instalatutako txosnek eskuragarri dagoen espazioari egokitutako okupazio-neurriak izango dituzte, produktuak eta edariak biltegitratzeko erabil daitekeen espazioa barne.

Erabiltzaileen eta herritarren segurtasuna bermatzeko beharrezko egonkortasuna eta segurtasuna izan beharko dute txosnek.

Txosna ireki aurretik aurkeztu beharreko dokumentazioa:

1. Txosna behar bezala muntatu izanaren ziurtagiria.
2. Erakunde eskudunak emaniko behin-behineko instalazio elektrikoaren buletinaren kopia. Instalazio elektrikoetarako baimenak, baita sorgailuetarako eta, oro har, industria-segurtasunari buruzko araudia bete behar duten instalazio guztietarako baimenak ere, erakunde eskudunaren aurrean izapidetuko dira.

#### 6. artikulua. Funtzionamendu baldintzak.

Tabernarako bakarrik izango da baimena, hau da, edariak eta ogitartekoak saltzeko. Txikizkako merkataritza-establezimenduen artean norberaren ekoizpeneko elikagaiak eta animalia-jatorriko produktuak hornitzeari buruzko abenduaren 13ko 1021/2022 Errege Dekretuan oinarrituta, berariaz debekatuta dago etxe partikularretan egindako elikagaiak hornitzea eta saltzea.

Elikagaiak eta edariak baimendutako establezimenduetatik etorririko dira, higie-ne baldintza egokietan garraiatuko dira, hotz-kateari eutsiko zaio, eta ez da bitarteko manipulaziorik egingo.

Elikagai eta edari guztiak behar bezala identifikatuta egongo dira beren etiketa, faktura edo albaranekin. Fakturak eta/edo albaranak ikuskaritzaren eskura egongo dira.

Sugarra edo bero-fokua duten instalazioak gehituz gero, su har dezakeen edozein elementutik metro bat baino gehiagora geratu beharko da, edo, hala bada, gorkio, behar bezala babestuta, tenperaturak edo koipeak instalazio elektrikoek ez eragiteko moduan. Gas bidezko edozein aparatu homologatuta egongo da, behar besteko aireztapena izan dezan.

Baimen honen titularrak arduratuko dira instalazioak behar bezala erabili eta garbitzeaz, eta zaborrak eta hondakinak erabili eta botatzeko poltsa itxietan utzi beharko dituzte, Udalak horretarako jarritako edukiontzietan hondakinen sailkapena errespetatuz. Nolanahi ere, merkaturatutako produktuei eta instalazioei buruzko araudi espezifikoek ezartzen dituzten baldintza higieniko-sanitarioak edo bestelakoak bete beharko dituzte eslependunek.

Debekatuta dago lurrian zerrautsa erabiltzea edo elikagaiak manipulatzeko edo biltegitratzeko eremuetan etxeko animaliak egotea.

Edariak zerbitzatzeko berriro erabil daitezkeen edalontziak erabiliko dira.

18 urtetik beherakoei ezin izango zaie alkoholdun edaririk saldu.

Edari alkoholduna saltzea baimenduta dagoen establezimendu edo jarduera orotan, kartelak jarri beharko dira toki agerian, adingabeei alkohola saltzea debekatuta dagoela adierazteko.

Alkoholik gabeko edari salmenta sustatuko da; adibidez, edari hauei prezio erakargarriagoak ezarrita.

brero, por el que se aprueba el Reglamento de desarrollo de la Ley de espectáculos públicos y actividades recreativas y en el Decreto 119/2019, de 23 de julio, de modificación del Decreto que aprueba el Reglamento de desarrollo de la Ley de espectáculos públicos y actividades recreativas.

Las instalaciones se ubicarán respetando en todo caso el espacio exacto indicado por el Ayuntamiento.

Las txosnas instaladas tendrán unas medidas de ocupación ajustadas al espacio disponible, incluyendo el espacio que se pudiera dedicar al almacenaje de productos y bebidas.

Las txosnas deberán presentar la estabilidad y seguridad necesarias para garantizar la seguridad de usuarios y ocupantes.

Documentación a aportar con carácter previo a la puesta en funcionamiento de la txosna:

1. Certificado del correcto montaje de la txosna instalada.
2. Copia del boletín de la instalación eléctrica temporal emitido por el organismo competente. Las autorizaciones para las instalaciones eléctricas, incluso los generadores y, en general, todas las instalaciones sujetas a reglamentación de seguridad industrial, se tramitarán ante el organismo competente.

#### Artículo 6. Condiciones de funcionamiento.

La autorización será para uso exclusivo de actividades de bar, entendiéndose como tales la expedición de bebidas y bocadillos, estando expresamente prohibido el abastecimiento y venta de alimentos elaborados en domicilios particulares, tal y como dicta el Real decreto 1021/2022, de 13 de diciembre por el que se regulan determinados requisitos en materia de higiene de la producción y comercialización de los productos alimenticios en establecimientos de comercio al por menor.

Los alimentos y bebidas procederán de establecimientos autorizados, se transportarán en condiciones adecuadas de higiene, manteniéndose la cadena de frío, y no se llevarán a cabo manipulaciones intermedias.

Todos los alimentos y bebidas estarán debidamente identificados con sus etiquetas, facturas y/o albaranes. Las facturas y/o albaranes estarán a disposición de la inspección.

En caso de incorporar instalaciones con llama o foco de calor, éste deberá quedar a más de un metro de cualquier elemento susceptible de arder, o en su caso protegido debidamente y de manera que no afecte por temperatura o deposición de grasas a las instalaciones eléctricas. Cualquier aparato a gas estará homologado, de manera que disponga de ventilación suficiente.

Las y los titulares de esta autorización se harán cargo del buen uso y limpieza de las instalaciones, debiendo depositar las basuras y desperdicios en bolsas desechables cerradas que se depositarán en los contenedores instalados al efecto por el Ayuntamiento respetando la clasificación de residuos. En cualquier caso, los y las adjudicatarios deberán cumplir los requisitos higiénico-sanitarios o de otra índole que establezcan las reglamentaciones específicas relativas a los productos comercializados e instalaciones.

Está prohibido utilizar serrín en el suelo o la presencia de animales domésticos en zonas de manipulación o almacenamiento de alimentos.

Para el servicio de bebidas se utilizarán vasos reutilizables.

No podrán venderse bebidas alcohólicas a menores de 18 años.

En todo establecimiento o actividad en que esté autorizada la venta de bebidas alcohólicas, deberán colocarse carteles en lugar visible en los que se indique la prohibición de venta de alcohol a menores.

Se fomentará la venta de bebidas sin alcohol, por ejemplo, con precios más atractivos para estas bebidas.

Debekatuta dago txosna barruan 16 urtetik beherakoak lanean aritzea. Ezingo dute alkoholdun edaririk zerbitzatu 18 urtetik beherakoek.

Zarataren eta kutsadura akustikoaren arloan indarrean dagoen legerian onartuta dauden irizpideak bete beharko dira.

Debekatuta dago emanaldiko bizikidetzeta, normaltasuna edo neutraltasuna arriskuan jar dezaketean kartelak, mezuak, sinboloak edo jarrerak erabiltzea.

Ez da onartuko Urnietako Udalaren irudia kaltetzen duen mezurik.

#### 7. artikulua. Hizkuntza baldintzak.

Onuradunek konpromisoa hartzen dute Udalak hizkuntza normalizaziorako ezarritakoa betetzeko, eta, horregatik, egiten dituzten jardueren ondorioz euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz emango dituzte agiri edo idazki guztiak (kartelak, abisuak, iragarkiak, programazioak, liburuxkak...), indarrean dagoen Euskararen Erabilera Normalizatzeko Arauei buruzko Urnietako legeriaren arabera.

#### 8. artikulua. Genero berdintasuna.

Onuradunek konpromisoa hartzen dute emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan indarrean dagoen legerian ezarritakoa eta indarrean dagoen Urnietako Berdintasunerako Planean xedatutakoa betetzeko.

Bereziki debekatuta dago emakumeen eta gizonen berdintasunaren aurkako edukiak erabiltzea, edo sexu, arraza edo sinemenengatik iraingarriak izan daitezkeen praktikak sustatzea.

### III. TITULUA

#### ZEHAPEN-ERREGIMENA

#### 9. artikulua. Printzipio orokorrak.

Ordenantza honen arau-haustetat joko dira bere edukia urratzen duten ekintzak edo omisioak, baita igor litezkeen baimenei lotzen zaizkien baldintza zehatzak ere. Honela sailkatuko dira arau-hauste horiek: arinak, larriak eta oso larriak.

Arau-haustek Tokiko Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 139. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraiki zehatzuko dira, bizikidetasun harremanak hondatzen dituzten jarreratzat jotzen direlako. Ondorioz, arau honetan aurreikusten diren arauak ez betetzeagatik arau-haustek ezartzen dira.

#### 10. artikulua. Arau-hausteei buruz.

##### 1. Arau-hauste arinak dira honako hauek:

Ordenantza honetan xedatzen den oro urratzea, baita Udalak emandako baimenetan adierazitako baldintzak ere, betiere, larritzat edo oso larritzat zehazki sailkatuturik ez badaude.

##### 2. Arau-hauste larriak dira honako hauek:

- Ezarritako ordutegitik kanpo instalazioa irekitzea.
- Zarata mugak gainditzea.
- Udalaren ikuskapenei eta kontrolei ezezkoa eman edo haiek eragozte.
- Ordenantza honetan aurreikusten dena ez betetzea, arau-hauste larritzat edo oso larritzat jotzen ez bada.

##### e) Arau-hauste arin bi edo gehiago egitea.

##### 3. Arau-hauste oso larriak dira honako hauek:

- Instalazioa zabaltzea, aldeztatik Udalaren baimena eskuratu gabe.

Queda prohibida la permanencia y ejecución de trabajos en el interior de la txosna a menores de 16 años. Las y los menores de 18 años no podrán servir bebidas alcohólicas.

Se deberán cumplir los criterios que en materia de ruido y contaminación acústica aprobados en la legislación vigente.

Se prohíbe la utilización de carteles, mensajes, símbolos o comportamientos que puedan hacer peligrar la convivencia, normalidad o neutralidad del espectáculo.

No se permitirán mensajes que dañen o perjudiquen la imagen del Ayuntamiento de Urnieta.

#### Artículo 7. Condiciones lingüísticas.

Las y los beneficiarios de las cesiones adquieren el compromiso de cumplir lo establecido por el Ayuntamiento para la normalización lingüística, y por ello toda documentación o escrito (carteles, avisos, anuncios, programaciones, folletos,...) derivado de las actividades que se desarrollen se redactará en euskera o en euskera y castellano según dicta la legislación vigente sobre las Normas para la Normalización del Uso del euskera de Urnieta.

#### Artículo 8. Igualdad de género.

Los y las beneficiarias adquieren el compromiso de cumplir lo fijado en la legislación vigente en materia de igualdad entre mujeres y hombres y con lo dispuesto en el Plan para la igualdad vigente de Urnieta.

Especialmente queda prohibida la utilización de contenidos, que atenten contra la igualdad de mujeres y hombres, y/o generen o alienten prácticas denigratorias por razones de sexo, raza o creencias.

### TÍTULO III

#### RÉGIMEN SANCIONADOR

#### Artículo 9. Principios generales.

Constituyen infracciones a esta Ordenanza las acciones y omisiones que contravengan su articulado y las concretas condiciones a que se sujeten las autorizaciones que en virtud de ésta pudieran emitirse y se clasifican en infracciones leves, infracciones graves e infracciones muy graves.

La determinación de las mismas se hace al amparo de lo establecido en el art. 139 y siguientes de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local por suponer dichas infracciones comportamientos que deterioran las relaciones de convivencia, motivo por el cual se establecen los tipos de infracciones por los incumplimientos a lo previsto en la presente norma.

#### Artículo 10. De las infracciones.

##### 1. Constituyen infracciones leves:

Todo incumplimiento a lo dispuesto en esta Ordenanza, así como en las condiciones expuestas en las oportunas autorizaciones extendidas por el Ayuntamiento y que no se encuentren tipificados expresamente como grave o muy grave.

##### 2. Constituyen infracciones graves:

- La apertura de la instalación fuera del horario establecido.
- El exceso de niveles de ruido.
- La negativa u obstaculización a la labor de inspección y controles municipales.

d) Cualquier otro incumplimiento a lo previsto en la presente Ordenanza que no constituya infracción grave o muy grave.

##### e) La comisión de dos o más faltas leves.

##### 3. Constituyen infracciones muy graves:

- La apertura de la instalación sin haber obtenido la previa autorización municipal.

- b) Txosna kokatzeko espazioa ez errespetatzea.
- c) Txosna instalatzeko edo kentzeko ezarritako datak ez errespetatzea.
- d) Edariak edalontzi ez-berrerabilgarrietan zerbitzatzea.
- e) Erabilera, zerbitzu edo ondare publikoko ondasunak larriki kaltetzea.
- f) Esleitutako titulartasuna aldatzea edo jabez aldatzea, edota ustiapena edo espazioa lagatzea, osorik edo partzialki.
- g) Instalazioa aurreikusi edo baimendu ez diren bestelako-entzako erabiltzea.
- h) Osasun publikoa larriki kaltetu dezaketen osasun neurrien urratzea.
- i) Udalaren edota pertsonen duintasunari erasotzen dioten edo edozein motatako biolentzia sustatzen duten horma-irudiak edota sinboloak erabiltzea, bizikidetasuna edo jai-ekintzen normaltasuna arriskuan jar baitezakete.
- j) Arau-hauste larri bi edo gehiago egitea.

#### 11. artikulua. Isunak.

1. Tokiko Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 141. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Ordenantza honetan arautzen diren arau-hausteentzako aurreikusitako isunak hurrengoak dira:

- Arau-hauste arinak 750 eurora arteko isunarekin zigortu daitezke.
- Arau-hauste larriak 1.500 eurora arteko isunarekin zigortu daitezke.
- Arau-hauste oso larriak ondokoekin zigortu ahal izango dira, aldizkatuta edo metatuta:
  - a) 3.000 eurora arteko isuna.
  - b) Emandako baimena baliogabetzea.
  - c) Txosna instalatzea edo erabiltzea debekatzea, hiru urtez, gehienez ere.

2. Isunak zehaztu eta ezartzeko, aurreko atalean gehieneko zenbatekoak ezartzen direla aintzat hartuz, ondorengo legeek jasotako proportzionaltasun irizpidearen arabera egingo da: Euskal Administrazio Publikoen zehatzeko ahalari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legeko 11. eta 14. artikulua eta toki-arabidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 84.2 artikulua.

#### 12. artikulua. Kautelazko neurriak hartzea.

Udal agintariak egokitzen jo ditzaketen kautelazko neurriak hartu ahal izango dituzte: Jarduera eten ahal izango dute eta txosna zigilatatu, baimenean eskatzen diren baldintzak bete ezean, instalazioan arriskurik egongo balitz edo osasun publikoarentzat arrisku larria izan daitezkeen osasun neurriak hautsiko balira.

Halaber, oso larritzat jo daitezkeen gertakaririk egongo balitz, kautelazko neurriak hartu ahal izango dira, kaltetutako bizikidetzaren harremanak lehengoratzeko, gertakariak gehiago irautea edo errepikatzea saihesteko, edota eragingo lituzkeen kalteak saihesteko.

#### Azken xedapena.

Akordio hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunean sartuko da indarrean eta horrela jarraituko du hura aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

- b) No respetar los espacios asignados para la ubicación.
- c) No respetar las fechas establecidas para colocación y/o retirada de la instalación.
- d) La expedición de bebidas en recipientes de no reutilizables.
- e) Causar daños graves a los bienes de uso, servicio o patrimonio públicos.
- f) El cambio o traspaso de la titularidad adjudicada o cesión de la explotación o espacio, de forma total o parcial.
- g) Destinar la instalación a usos no previstos o distintos a los autorizados.
- h) La infracción de medidas sanitarias que produzca grave riesgo a la salud pública.
- i) La utilización de carteles y/o símbolos que atenten contra el Ayuntamiento o contra la dignidad de las personas, apoyen cualquier tipo de violencia, y puedan hacer con ello peligrar la convivencia o la normalidad de los actos festivos.
- j) La comisión de dos o más faltas graves.

#### Artículo 11. Sanciones.

1. Las sanciones previstas para las infracciones reguladas en la presente Ordenanza conforme a lo previsto en el art. 141 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, son las siguientes:

- Las infracciones leves podrán ser sancionadas con multa de hasta 750 euros.
- Las infracciones graves podrán ser sancionadas con multa de hasta 1.500 euros.
- Las infracciones muy graves podrán ser sancionadas alternativa o acumulativamente con:
  - a) Multa de hasta 3.000 euros.
  - b) Revocación de la autorización concedida.
  - c) Prohibición de instalación o utilización de txosna por un periodo máximo de hasta tres años.

2. Para la determinación e imposición de las sanciones, considerándose que en el apartado anterior se establecen en sus cuantías máximas, se atenderá al principio de proporcionalidad recogido en los artículos 11 y 14 de Ley 1/2023, de 16 de marzo, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas Vascas y en el artículo 84.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

#### Artículo 12. Adopción de medidas cautelares.

La autoridad municipal podrá adoptar las medidas cautelares que estimase oportunas, incluida la orden de cese de la actividad y el precintaje de la misma si se incumpliesen las condiciones exigidas en la autorización, existiera un riesgo en la instalación, o se infringieran medidas sanitarias que puedan suponer un grave riesgo para la salud pública.

También podrán ser adoptadas si se produjeran hechos susceptibles de ser calificados como constitutivos de infracción muy grave y a efectos de restaurar las relaciones de convivencia deterioradas o para evitar la continuación o repetición de los hechos o el mantenimiento de los daños que se estuviesen ocasionando.

#### Disposición final.

La entrada en vigor del presente Reglamento tendrá lugar el día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y se mantendrá en vigor hasta que se acuerde su modificación o revocación.